



DBH1-2

UDALEKU IREKIAK

- Bilbao Basket Lauaxeta Saski Campus
- SDA Lauaxeta Futbol Campus
- Bela
- Mendi ibiltaria



AURKIBIDEA

1. Ongi etorri!

2. Eskaintza- Oferta

2.1. Bilbao Basket Lauaxeta Saski Campus

2.2. SDA Lauaxeta Futbol Campus

2.3. Bela

2.4. Mendi ibiltaria

3. Garraio zerbitzua- Servicio de transporte

4. Izen ematea- Inscripción

1. Ongi etorri!

Ongi etorri Lauaxeta Ikastolako udalekuetara!

Uda une aproposa da deskubritzeko, ikasteko eta gozatzeko.

Udaleku eta udako ekintzek aukera paregabea eskaintzen dute autonomia garatzeko, ingurune aberasgarri batean sozializatzeko eta natura, kirola, sormena eta kultura bezalako arloekin harremanetan esperientzia berriak bizitzeko, edo ezagutzak eta esperientziak sakontzeko.

Ikastolatik, adin-tarte bakoitzari egokitutako ekintza eskaintza bat diseinatu dugu, etapa bakoitzaren interesak eta beharrak kontuan hartuta. Gure helburua da parte-hartzaile bakoitzak gozatzea, haztea, ikastea, edota adinan aurrera eginda, betiere lagunartean eta esperientzia ahaztezinez betetako uda baten alde lan egingo duen monitore talde baten gidariztapean.

Aukerak aztertzeraz eta esperientzia honetara bat egitera animatzen zaituztegu, zalantzarik gabe, parte-hartzaile bakoitzaren etorkizunerako oroitzapen berezi eta bultzada bat izango baita.

Zuen zain gaituzue, aukera eta ikaskuntzaz beteriko uda bat partekatzeko!

¡Ongi etorri a los udalekus Lauaxeta Ikastola!

El verano es un momento perfecto para descubrir, aprender y disfrutar.

Los campamentos y actividades de verano ofrecen una oportunidad única para desarrollar la autonomía, socializar en un entorno enriquecedor y experimentar nuevas experiencias en contacto con la naturaleza, el deporte, la creatividad y la cultura o de ahondar en conocimientos y experiencias que suman.

Desde la ikastola, hemos diseñado una oferta de actividades adaptada a cada edad, teniendo en cuenta los intereses y necesidades de cada etapa. Nuestro objetivo es que cada participante encuentre un espacio donde disfrutar, crecer, estudiar, y vivir experiencias inolvidables, rodeado de amigas y amigos y guiado por monitorado comprometido en que así sea.

Os animamos a explorar las diferentes opciones y a sumaros a esta experiencia que, sin duda, será un recuerdo especial y un impulso para el futuro de cada participante.

¡Os esperamos para compartir un verano lleno de oportunidades y aprendizaje!

2. Eskaintza

Oferta

Noiz garatuko da? ¿Cuándo se desarrollará?	Zein da prezioa ¿Qué precio tiene?	Zein da ordutegia? ¿Cuál es el horario?
BILBAO BASKET LAUAXETA SASKI CAMPUS Ekainak 19-26 / 19-26 de junio	240 € ekintza soilik eta 36€ autobusa 19-26 de junio: 240€ solo actividad y 36€ autobús	9:15-16:30
SDA LAUAXETA FUTBOL CAMPUS Ekainak 19-26 / 19-26 de junio	240 € ekintza soilik eta 36€ autobusa 19-26 de junio: 240€ solo actividad y 36€ autobús	9:15-16:30
BELA Ekainak 29 - uztailak 3 / 29 de junio a 3 de julio	250 € ekintza soilik eta 30€ autobusa 250€ solo actividad y 30€ autobús	9:15-16:30
MENDI IBILTARIA Ekainak 29 - uztailak 3 / 29 de junio a 3 de julio	250 € ekintza soilik 250€ solo actividad	9:15-16:30

2.1. Bilbao Basket Lauaxeta Saski Campus



Helburuak Objetivos



- **Saskibaloiaz gozatzea: Jolas eta dinamika egokituen bidez saskibaloia ikasi eta ondo pasatzea.**
- **Koordinazioa eta trebetasunak hobetzea: Gorputz-kontrola, arintasuna eta teknika modu naturalean eta aurrerakoi batean garatzea.**
- **Taldean jokatzeko ikastea: Elkarlana, errespetua eta komunikazioa sustatzea kantxan eta kanpoan.**
- **Autonomia eta konfiantza irabaztea: Erronka txikiei aurre egitea, erabakiak hartzea eta autoestimua indartzea giro lagungarri batean.**

- Disfrutar del baloncesto: Aprender y divertirse con el baloncesto a través de juegos y dinámicas adaptadas a su edad.
- Mejorar la coordinación y habilidades: Desarrollar el control corporal, la agilidad y la técnica de forma natural y progresiva.
- Aprender a jugar en equipo: Fomentar la cooperación, el respeto y la comunicación dentro y fuera de la cancha.
- Ganar autonomía y confianza: Enfrentarse a pequeños retos, tomar decisiones y reforzar la autoestima en un ambiente de apoyo.

Antolakuntza

Organización

Bilbao Basket Fundazioak Bilbao Basket Campusa garatuko du Lauaxetan, kirolaren arloko kultura eta bizikidetza hezkuntza-xedeekin sustatzeko, alderdi ludikoa baztertu gabe, garapen indibidual eta soziala landuz, giza prestakuntza integrala finkatzen duten balioak bultzatzeaz batera.

Jarduerak nagusiki ikastolako kirol espazioetan egingo dira, bai barne polikiroldegikoak, zein kanpokoak, igerilekua barne, hala ere, behar izanez gero, ikastolako beste instalazio batzuk ere erabili ahal izango dira ekintzen arabera.

Begirale taldeak dagozkien berme legal guztiak betetzen dituzte.
Jangela zerbitzua egongo da, ikastolan ohikoak diren sukaldari eta langile profesionalen eskutik.

La Fundación Bilbao Basket desarrollará en Lauaxeta el Campus Bilbao Basket con el objetivo de fomentar la cultura y la convivencia en el deporte con fines educativos, sin excluir el aspecto lúdico, trabajando el desarrollo individual y social, al tiempo que se impulsan los valores que consolidan la formación humana integral.

Las actividades se realizarán principalmente en los espacios deportivos de la ikastola, tanto del polideportivo interno como del exterior, incluida la piscina. si bien para otras actividades se podrá hacer uso de otras instalaciones de la ikastola.

Habrá servicio de comedor a cargo de los cocineros y trabajadores profesionales habituales de la ikastola.

El equipo de monitores y monitoras cumple con todas las garantías legales correspondientes.

El horario habitual será el que sigue:

9:15-9:30	Harrera- Recepción
9:30-11:00	Ekintzak- Actividades
11:00-11:30	Hamaiketakoa
11:30-13:30	Ekintzak- Actividades
13:30-14:30	Bazkaria- Comida
14:30-16:30	Ekintzak- Actividades
16:30	Amaiera- Fin de la jornada



Ekintzak

Actividades

BALOIAREKIN JOLASA:

Helburua da baloiarekin ohitzea, jolasean gozatzea, teknika hobetzea eta konfiantza indartzea. Lantzen dira botea eta baloiaren kontrola, saskiratzeko aukera desberdinak eta jaurtitzeko aukerak, baita baloiarekin egindako lasterketak eta zirkuituak ere, koordinazioa eta oreka garatzeko.

JOLASTUZ IKASTEN:

Jokoa modu errazean eta progresiboan ulertzea da helburua, saskibaloia talde-dimentsioa barneratuz. Oinarrizko ekintzak lantzen dira, hala nola banakako teknikari dagozkion kontzeptuak eta eraso eta defentsa taktika eta teknika desberdinak. Baloirik gabeko mugimenduak ere lantzen dira, eta partidu egokituak (1x1, 3x3) egiten dira ikasitakoa sendotzeko.

TALDE-LANA:

Taldekidetasuna eta errespetua sustatzen dira, saskibaloia kirol kolektiboa dela ulertuz. Joko kooperatiboen, taldeko erronken eta dinamika parte-hartzaileen bidez, ikasleek baloia partekatzen, pistaren barruan komunikatzen eta taldeko lorpenak baloratzen ikasten dute.

MUGIMENDUA ETA PSIKOMOTRIZITATEA:

Oinarrizko trebetasun motorrak modu seguruan eta adinera egokituta garatzea da helburua. Abiadura, koordinazioa, oreka, jauziak eta noranzko aldaketak lantzen dira zirkuitu dinamiko eta jarduera anitzen bidez.

BALIOAK ETA GOZAMENA:

Kirolaz gozatzea eta praktikatzen jarraitzeko gogoia sustatzen da. Errespetua, ahalegina, norberaren gaitasuna eta talde-lana bezalako balioak indartzen dira, irabazten zein galtzen ikasiz. Programa mini-txapelketa eta amaierako ospakizunekin osatzen da, bizitako esperientzia sendotuz.

JUEGO CON BALÓN:

El objetivo es que se familiarice con el balón, disfrute del juego, mejore su técnica y refuerce su confianza. Se trabajan tanto el bote y control del balón, diferentes finalizaciones a canasta y distintas situaciones de tiro, así como carreras y circuitos con balón para desarrollar la coordinación y el equilibrio.

APRENDER JUGANDO:

Se busca comprender el juego de manera sencilla y progresiva, introduciendo la dimensión colectiva del baloncesto. Se practican fundamnetos básicos de técnica individual y táctica y técnica tanto defensiva como ofensiva. También se trabajan los movimientos sin balón y se realizan partidos adaptados (1x1, 3x3) para consolidar los aprendizajes.

TRABAJO EN EQUIPO:

Se fomenta el compañerismo y el respeto, entendiendo el baloncesto como un deporte colectivo. A través de juegos cooperativos, retos por equipos y dinámicas grupales, el alumnado aprende a compartir el balón, comunicarse en la pista y valorar los logros colectivos.

MOVIMIENTO Y PSICOMOTRICIDAD:

Se desarrollan las habilidades motrices básicas de forma segura y adaptada a la edad. Se trabajan la velocidad, la coordinación, el equilibrio, los saltos y los cambios de dirección mediante circuitos dinámicos y actividades variadas.

VALORES Y DISFRUTE:

Se promueve el gusto por el deporte y el deseo de seguir practicándolo. Se refuerzan valores como el respeto, el esfuerzo, la superación personal y el trabajo en equipo, aprendiendo tanto a ganar como a perder. El programa se completa con mini-torneos y celebraciones finales que consolidan la experiencia.

2.2. SDA Lauaxeta Futbol Campus



Helburuak Objetivos



- **Kirolaren inklusibitatea sustatzea, parte-hartzaile guztiek —jatorria edo gaitasunak gorabehera— integratuta eta baloratuta sentitzeko aukera izan dezaten.**
 - **Banakako eta taldeko teknika eta taktika hobetzea, ingurune ludiko eta motibatzaile batean.**
 - **Koordinazioa, arintasuna eta erresistentzia fisikoa garatzea, parte-hartzaileen adinari egokitutako ariketa berezien bidez.**
 - **Talde-lana eta talde-giro ona sustatzea, zelaian zein zelaitik kanpo.**
 - **Ariketa guztiak moduludikoan planteatuko dira, jokoa izango delarik ikaskuntza eta kirol-errendimendua hobetzeko tresna nagusia.**
- Fomentar la inclusividad en el deporte, garantizando que todos los participantes, independientemente de su origen o habilidades, se sientan integrados y valorados.
 - Mejorar la técnica y táctica individual y colectiva en un entorno lúdico y motivador.
 - Desarrollar la coordinación, agilidad y resistencia física a través de ejercicios diseñados específicamente para la edad de los participantes.
 - Fomentar el trabajo en equipo y el compañerismo dentro y fuera del campo.
 - Todos los ejercicios se plantearán de forma lúdica, utilizando el juego como herramienta principal para el aprendizaje y la mejora del rendimiento deportivo.

Antolakuntza

Organización

SDAk, SDA Futbol Campusa garatuko du Lauaxetan, kirolaren arloko kultura eta bizikidetza hezkuntza-xedeekin sustatzeko, alderdi ludikoa baztertu gabe, garapen indibidual eta soziala landuz, giza prestakuntza integrala finkatzen duten balioak bultzatzeaz batera.

Jarduerak nagusiki ikastolako kirol espazioetan egingo dira, bai barne polikiroldegikoak, zein kanpokoak, igerilekua barne, hala ere, behar izanez gero, ikastolako beste instalazio batzuk ere erabili ahal izango dira ekintzen arabera.

Jangela zerbitzua egongo da, ikastolan ohikoak diren sukaldari eta langile profesionalen eskutik.

Begirale taldeak dagozkien berme legal guztiak betetzen dituzte.

Las actividades realizadas se organizan teniendo en cuenta la edad del grupo de participantes. Cada grupo dispondrá de una aula asignada, ya que ésta será la zona básica para depositar las mochilas y el material para el día por la mañana e iniciar la actividad.

Las actividades se realizarán principalmente en los espacios deportivos de la ikastola, tanto del polideportivo interno como del exterior, incluida la piscina. si bien para otras actividades se podrá hacer uso de otras instalaciones de la ikastola.

Habrá servicio de comedor a cargo de los cocineros y trabajadores profesionales habituales de la ikastola.

El equipo de monitores y monitoras cumple con todas las garantías legales correspondientes.

9:15-9:30	Harrera- Recepción
9:30-11:00	Ekintzak- Actividades
11:00-11:30	Hamaiketakoa
11:30-13:30	Ekintzak- Actividades
13:30-14:30	Bazkaria- Comida
14:30-16:30	Ekintzak- Actividades
16:30	Amaiera- Fin de la jornada



Ekintzak

Actividades

BALOIA ETA TEKNIKA INDIBIDUALA:

Helburua da baloiarekin ohitzea, oinarrizko teknikak hobetzea eta jokoan konfiantza irabaztea. Lantzen dira kontrola eta gidatzea, paseak eta jasotzeak, atezainera jaurtiketak, driblingak eta noranzko aldaketak, baita koordinazioa eta zehaztasuna garatzeko ariketa espezifikoak ere.

JOLASTUZ IKASTEN:

Futbola modu progresiboan ulertzea da helburua, banakako oinarriak zein jokoaren talde-dimentsioa barneratuz. Partiduko egoera errealak lantzen dira, hala nola laguntzak, desmarkeak, espazioen okupazioa eta amaierako jaurtiketak. Partidu egokitu eta murriztuak egiten dira, parte-hartzea eta erabakiak hartzea sustatzeko.

TALDE-LANA:

Taldekidetasuna, komunikazioa eta errespetua sustatzen dira, futbola kirol kolektiboa dela ulertuz. Dinamika kooperatiboen eta taldeko erronken bidez, ikasleek elkarrekin koordinatzen, elkarri laguntzen eta emaitzaren gainetik ahalegin partekatua baloratzen ikasten dute.

PRESTAKUNTZA FISIKOA ETA PSIKOMOTRIZITATEA:

Oinarrizko gaitasun fisikoak modu seguruan eta adinera egokituta garatzen dira. Abiadura, arintasuna, erresistentzia, koordinazioa eta erritmo-aldaketak lantzen dira zirkuitu dinamikoen, jokoaren eta futboleko ariketa espezifikoaren bidez.

BALIOAK ETA GOZAMENA:

Kirolaz gozatzea eta praktikatzen jarraitzeko gogoia sustatzen da. Errespetua, fair play-a, konfiantza eta norberaren gaitasuna bezalako balioak indartzen dira. Campusa mini-txapelketa eta amaierako jarduera bereziekin osatzen da, bizitako esperientzia sendotuz eta talde-sentimendua indartuz.

BALÓN Y TÉCNICA INDIVIDUAL:

El objetivo es que se familiaricen con el balón, mejore su técnica y gane confianza en el juego. Se trabajan el control y conducción, los pases y recepciones, los tiros a portería, los regates y cambios de dirección, así como ejercicios específicos para mejorar la coordinación y la precisión.

APRENDER JUGANDO:

Se busca comprender el fútbol de forma progresiva, entendiendo tanto los fundamentos individuales como la dimensión colectiva del juego. Se practican situaciones reales de partido, apoyos, desmarques, ocupación de espacios y finalizaciones. Se realizan partidos adaptados y reducidos para favorecer la participación activa y la toma de decisiones.

TRABAJO EN EQUIPO:

Se fomenta el compañerismo, la comunicación y el respeto, entendiendo el fútbol como un deporte colectivo. A través de dinámicas cooperativas y retos por equipos, aprenden a coordinarse, apoyarse mutuamente y valorar el esfuerzo conjunto por encima del resultado individual.

CONDICIÓN FÍSICA Y PSICOMOTRICIDAD:

Se desarrollan las habilidades físicas básicas de manera segura y adaptada a la edad. Se trabajan la velocidad, la agilidad, la resistencia, la coordinación y los cambios de ritmo mediante circuitos dinámicos, juegos y ejercicios específicos del fútbol.

VALORES Y DISFRUTE:

Se promueve el gusto por el deporte y el deseo de seguir practicándolo. Se refuerzan valores como el respeto a compañeros y rivales, el juego limpio, la constancia y la superación personal. El campus se completa con mini-torneos y actividades finales que consolidan la experiencia y fortalecen el sentimiento de grupo.

2.3. Bela



Helburuak Objetivos

- **Nabigatzen** **hastea:** **Belaren,** **ontzia** **maneiatzearen** **eta** **uretako** **segurtasunaren** **oinarrizko** **kontzeptuak** **modu** **praktikoan** **eta** **dibertigarrian** **ikastea.**
- **Autonomia** **eta** **erabakiak** **hartzea** **sustatzea.**
- **Taldean** **lan** **egitea** **eta** **lankidetza** **sustatzea.**
- **Itsasoarekin** **eta** **ingurumenarekin** **konektatzea:** **Itsas** **ingurunea** **zaintzearen** **garrantziaz** **jabetzea** **eta** **kontzientzia** **ekologikoa** **garatzea** **uretan** **izandako** **esperientziaren** **bidez.**
- Iniciarse en la navegación: Aprender los conceptos básicos de la vela, el manejo de la embarcación y la seguridad en el agua de forma práctica y divertida.
- Fomentar la autonomía y la toma de decisiones.
- Trabajar en equipo y potenciar la cooperación.
- Conectar con el mar y el medio ambiente: Descubrir la importancia de cuidar el entorno marino y desarrollar conciencia ecológica a través de la experiencia en el agua.

Antolakuntza Organización

Ekintza Pakea Bela eskolaren eskutik egingo da, Unai Basurkok sortua. Jarduera honek kirola, itsasoa eta lankidetzak uztartzen ditu.

Saioak Algortako portuan garatuko dira Pakea Bela Eskolakoko monitoreen bitartez eta gure begiraleek Ereagako hondartzan eta Portu zaharrean gidatutako ekintzekin osotuko dira

Ikastolatik aisialdiko begira batekin jaongo dira autobusez. Jantokian prestatutako bokadilloak eroango dituzte.

Gure begirale taldea ikastolan bertan formatutakoa da eta dagozkien berme legal guztiak betetzen dituzte.

La actividad se realiza de la mano de la escuela Pakea Bela, creada por Unai Basurko. Esta actividad combina deporte, mar y cooperación.

Las actividades se realizarán en el puerto de Algorta con monitorado de Pakea Bela eskola y se completarán con actividades en la playa de Ereaga y el Puerto viejo con nuestro monitorado.

Desde la ikastola se trasladarán en autobús con un monitor de tiempo libre. Llevarán bocadillos elaborados en la cocina de la ikastola.

Nuestro equipo de monitores y monitoras se ha formado en la propia ikastola y cumple con todas las garantías legales correspondientes.



Ekintzak

Actividades

BELAREN HASTAPENA ETA TEKNIKA:

Nabigazioaren munduan murgiltzen dira, belaren oinarriak ikasiz: ontziaren atalak, belen erabilera, norabideak eta uretan oreka mantentzea. Saioak Algortako portuan egiten dira, Pakea Bela Eskolako begirale espezializatuekin, ikaskuntza progresibo eta segurua bermatuz.

SEGURTASUNA ETA ITSAS INGURUNEAREN EZAGUTZA:

Oinarrizko segurtasun-arauak, materialaren erabilera egokia eta itsas ingurunearekiko errespetua lantzen dira. Ikasleek haizea eta itsasoaren baldintzak interpretatzen ikasten dute, erantzukizuna eta autonomia garatuz.

TALDE-LANA ETA KOORDINAZIOA:

Belak lankidetzan eta komunikazio etengabea eskatzen du. Parte-hartzaileek ontzian rolak banatzen, elkarrekin erabakiak hartzen eta norabidea mantentzeko koordinatzen ikasten dute.

INGURUNeko JARDUERA OSAGARRIAK:

Esperientzia da, gure ereagako hondartzan eta Portu Zaharrean egindako jarduerekin osatzen indartuz. bizikidetzan eta kostaldearekiko lotura

BALIOAK ETA NATURAREKIN LOTURA:

Itsasoarekiko errespetua, norberaren gainditzea eta konfiantza sustatzen dira. Helburua da ikasleek esperientzia aktibo, osasungarri eta naturarekin konektatua bizitzea.

INICIACIÓN Y TÉCNICA DE VELA:

Se introducen en el mundo de la navegación aprendiendo las bases de la vela: partes de la embarcación, manejo de las velas, rumbos y equilibrio en el agua. Las sesiones se desarrollan en el puerto de Algorta con el monitorado especializado de Pakea Bela Eskola, garantizando aprendizaje progresivo y seguro.

SEGURIDAD Y CONOCIMIENTO DEL MAR:

Se trabajan normas básicas de seguridad, uso del material y respeto por el entorno marino. Aprenden a interpretar el viento y las condiciones del mar, desarrollando responsabilidad y autonomía en un entorno natural.

TRABAJO EN EQUIPO Y COORDINACIÓN:

La vela requiere cooperación y comunicación constante. Los participantes aprenden a coordinarse dentro de la embarcación, repartir tareas y tomar decisiones conjuntas para mantener el rumbo y el equilibrio.

ACTIVIDADES COMPLEMENTARIAS EN EL ENTORNO:

La experiencia se completa con dinámicas y juegos en la playa de Ereaga y el Puerto Viejo, guiados por nuestro monitorado, reforzando la convivencia, el vínculo con el entorno costero y el disfrute del verano.

VALORES Y CONEXIÓN CON LA NATURALEZA:

Promueve el respeto por el mar, la superación personal y la confianza en uno mismo. Se busca que una experiencia activa, saludable y conectada con el entorno natural de la costa.

2.4. Mendi ibiltaria



Helburuak Objetivos

- **Naturan trebetasunak garatzea:** Orientazioko, biziraupeneko eta mendi-ibilietako oinarrizko teknikak ikastea, ingurune naturalean segurtasunez mugitzeko.
 - **Autonomia eta gainditze pertsonala** sustatzea.
 - **Taldean lan egiten ikastea:** Probak taldean gainditzea, baterako erabakiak hartzea eta lankidetzaren eta laguntasunaren indartzea.
 - **Ingurumenarekin konektatzea:** Naturaren balioa deskubritzea, errespetatzen ikastea eta ohitura iraunkorrak praktikatzeko.
- Desarrollar habilidades en la naturaleza: Aprender técnicas básicas de orientación, supervivencia y senderismo para moverse con seguridad en el entorno natural.
 - Fomentar la autonomía y la superación personal.
 - Aprender a trabajar en equipo Superar pruebas en grupo, tomar decisiones conjuntas y fortalecer la cooperación y el compañerismo.
 - Conectar con el medio ambiente: Descubrir el valor de la naturaleza, aprender a respetarla y practicar hábitos sostenibles.

Antolakuntza

Organización

Bizkaiko mendialde paregabeaz gozatzeko aukera izango dute. Hainbat aterpetxetan lo egingo dute eta ingurunea esploratu monitoreen gidaritzapean. Esperientzia honek abentura eta laguntasuna uztartzen ditu modu apartan.

Etxetik kanpora egiten da lo, lehen eta azken eguna Lauaxetako Hostelean eta gainontzekoak Urkiolako ibilbidean zehar.

Jangela zerbitzua egongo da, ikastolan ohikoak diren sukaldari eta langile profesionalen eskutik.

Gure begirale taldea ikastolan bertan formatutakoa da eta dagozkien berme legal guztiak betetzen dituzte.

En esta actividad podrán disfrutar de la incomparable montaña vizcaína. Dormirán en varios albergues y explorarán el entorno bajo la dirección de nuestro monitorado. Esta experiencia combina aventura y compañerismo de una manera extraordinaria.

Se pernocta fuera de casa: la primera y la noche en Lauaxeta Hostel y el resto a lo largo del recorrido por Urkiola.

Habrá servicio de comedor a cargo de los cocineros y trabajadores profesionales habituales de la ikastola.

Nuestro equipo de monitores y monitoras se ha formado en la propia ikastola y cumple con todas las garantías legales correspondientes.

Día- Eguna	Ibilbidea- Recorrido	Lo egitea- Pernocta
Ekainak 29- 29 de junio	Lauaxeta orienting	Lauaxeta Hostel
Ekainak 30- 30 de junio	Lauaxeta- Abadiño Urkiola	Urkiola
Uztailak 1- 1 de julio	Urkiola-Anboto	Urkiola
Uztailak 2- 2 de julio	URkiola-Untzillaitz-Mañaria	Lauaxeta Hostel
Uztailak 3- 3 de julio	San MArin-Parrillada	Etxean- En casa



Ekintzak

Actividades

MENDI IBILALDIEN ETA ORIENTAZIOAREN HASTAPENAK:

Mendiko ingurunean murgiltzen dira, adinera egokitutako ibilbideen bidez. Oinarrizko orientazio-nozioak, materialaren prestaketa eta irteeren plangintza lantzen dituzte. Jarduerak ingurune natural hurbiletan egiten dira, monitorado espezializatuaren laguntzarekin, esperientzia segurua eta progresiboa bermatuz.

SEGURTASUNA ETA INGURUNE NATURALAREN EZAGUTZA:

Segurtasun arau oinarrizkoak, prebentzioa eta ingurumenaren zaintza lantzen dira. Ikasleek ingurunea interpretatzen, bertako flora eta fauna ezagutzen eta mendian arduraz jokatzeko ikasten dute, autonomia eta errespetua garatuz.

TALDE-LANA ETA GAINDITZEA:

Ibilaldiek lankidetzak, elkar-laguntza eta erabaki partekatuak sustatzen dituzte. Mendia bizikidetzak indartzeko, ahalegina lantzeko eta norberarenganako konfiantza sendotzeko gune bihurtzen da.

AIRE ZABALEKO DINAMIKAK ETA JOLASAK:

Esperientzia erronka kooperatiboak eta jarduerak ludikoekin osatzen dira, naturarekin lotura eta elkarrekin gozatzeko aukera indartuz.

BALIOAK ETA NATURAREKIKO LOTURA:

Kanpaldiak errespetua, erresilientzia eta bizimodu osasungarriak sustatzen ditu, mendiarekin konektatutako esperientzia aktiboak eta aberasgarriak bizitzeko aukera eskainiz.

INICIACIÓN AL SENDERISMO Y ORIENTACIÓN:

Se adentra en el entorno de montaña mediante rutas adaptadas a su edad. Aprenden nociones básicas de orientación, preparación del material y planificación de salidas. Las actividades se desarrollan en espacios naturales cercanos, con monitorado especializado que garantiza una experiencia segura y progresiva.

SEGURIDAD Y CONOCIMIENTO DEL ENTORNO:

Se trabajan normas básicas de seguridad, prevención y cuidado del medio natural. Aprende a interpretar el entorno, conocer la flora y fauna local y actuar con responsabilidad en la montaña, desarrollando autonomía y respeto.

TRABAJO EN EQUIPO Y SUPERACIÓN:

Las rutas fomentan la cooperación, el apoyo mutuo y la toma de decisiones compartidas. La montaña se convierte en un espacio para fortalecer la convivencia, el esfuerzo y la confianza en uno mismo.

DINÁMICAS Y JUEGOS AL AIRE LIBRE:

La experiencia se completa con retos cooperativos y actividades lúdicas en plena naturaleza, reforzando el vínculo con el entorno y el disfrute compartido.

VALORES Y CONEXIÓN CON LA NATURALEZA:

El campamento impulsa el respeto, la resiliencia y los hábitos de vida saludables, promoviendo una vivencia activa y conectada con la montaña.así en un espacio para fortalecer la convivencia y la confianza en uno mismo.

DINÁMICAS Y JUEGOS EN LA NATURALEZA:

La experiencia se complementa con actividades lúdicas, retos cooperativos y juegos al aire libre que refuerzan la cohesión del grupo. Estas dinámicas permiten aprender desde la experiencia directa, favoreciendo el disfrute, la curiosidad y el vínculo con el entorno natural.

VALORES Y CONEXIÓN CON LA MONTAÑA:

El campamento promueve el respeto por la naturaleza, el esfuerzo, la resiliencia y la superación personal. Se busca que viva una experiencia activa y saludable, conectando con el paisaje y descubriendo la montaña como espacio de aprendizaje, bienestar y crecimiento personal.

3. Garraio zerbitzua

Servicio de transporte

Mendi ibiltariaren kasuan, nahi duenarentzat garraio zerbitzua eskuragarri izango da lehen eguean ikastolara heltzeko eta azken egunean etxera bueltatzeko. 5 linea izango dira.






Gainontzekoetan, nahi duenarentzat garraio zerbitzua eskuragarri izango da lehen eguean ikastolara heltzeko eta azken egunean etxera bueltatzeko. 5 linea izango dira.

En el caso de Mendi ibiltaria, estará disponible el servicio de transporte para el primer día para llegar a la ikastola y el último día para volver a casa. Se contará con 5 líneas.

En los demás casos, estará disponible el servicio de transporte para el primer día para llegar a la ikastola y el último día para volver a casa. organizando los autobuses según las inscripciones. Se contará con 5 líneas.

LAUAXETA IKASTOLA UDALEKUAK

GARRAIO ZERBITZUA - SERVICIO DE TRANSPORTE



LINEEN EGOERA ERABILTZAILEEN ARABERA ALDAKORRA IZAN DAITEKE.

EKAINAREN 19TIK UZTAILAREN 3RA

DEL 19 DE JUNIO AL 3 DE JULIO

LA CONFIGURACIÓN DE LAS LINEAS PODRA MODIFICARSE DEPENDIENDO DE LA CANTIDAD DE USUARIOS

4. Izen ematea

Inscripción

- **Izena emateko epea martxoaren 16ra arte luzatzen da. Plaza eskatzeko, beheko botoian klikatu:**

Izena eman nahi dut

- **Ordainketari dagokionez, prezioaren %50a apirileko ordainagirian gauzatuko da eta beste %50a ekaineko ordainagirian.**
- **Udaleku eskaera atzera botatzea nahiko balitz, hurrengoa euki beharko litzateke kontutan.**
 - **Martxoak 30a orduko atzera botako balitz; ez da ezer kobratuko.**
 - **Apirilak 1 - Maiatzak 30 bitartean atzera botako balitz; apirileko ordainagirian ordaindutakoaren %50a bakarrik itzuliko da (hau da, udalekuko prezioaren %25a ez da itzuliko).**
 - **Ekainak 1etik aurrera eta udalekua hasi bitartean; udalekuko prezioaren %50a bakarrik itzuliko da.**

- El plazo de inscripción se extiende hasta el 16 de marzo y podrá realizarse accediendo al siguiente botón:

Quiero inscribirme

- En cuanto al pago, el 50% del precio se hará efectivo en el recibo de abril y el otro 50% en el recibo de junio.
- Si se quisiera cancelar la inscripción, habría que tener en cuenta lo siguiente:
 - Cancelaciones hasta el 30 de marzo; no se cobrará nada.
 - Cancelaciones entre el 1 de abril - 30 de mayo; sólo se devolverá el 50% de lo abonado en el recibo de abril (es decir, no se devolverá el 25% del precio del campamento).
 - Cancelaciones entre el 1 de junio - Hasta el inicio del campamento, sólo se devolverá el 50% del precio del campamento.

- **Behar den eran arrazoitutako osasun arrazoiren bategatik izan ezik, ez da dirua guztiz itzuliko.**
- **Ez da posible plazarik eskatzea, ikasturteko errezipo arrunten ordainketan atzeratuta egonez gero.**
- **Edozein zalantzaratako, idatzi mesedez: eskolazkanpokoak@lauaxeta.eus**

- No se realizarán reembolsos salvo por motivos de salud debidamente justificados.
- No es posible solicitar plaza en caso de estar atrasado en el pago de los recibos ordinarios del curso. En caso de cualquier duda, se puede escribir a eskolazkanpokoak@lauaxeta.eus



LAUAXETA
IKASTOLA

lauaxeta.eus